

OSASUN PROTOKOLOA

Ikasleren batek gaixotasun kronikoren bat diagnostikatuta baldin badu edo botikaren bat beti hartu behar badu, familiak tutoreari eta Ikastetxeko zuzendaritzako arduradunei jakinarazi beharko die horren berri. Komenigarria da medikuaren txostena aurkeztea, non azalduko den zer jarrera hartu behar den edo zer protokolori jarraitu behar zaion ezustekoren bat gertatuz gero.

Ikasleren batek eskola-ordutegian osasun-arazoren bat baldin badu, Zuzendaritza Taldeari jakinaraziko zaio berehala, ikaslea zaintzeko eta haren ahaideak aurkitzeko. Larritasunaren kasuan, irakasle jagoleak lagunduko dio dagokion osasun-zentrora.

Institutuan botika-kutxa bat dago ondoezak edo zauri arinak artatzeko, baina **egun horretan bertan eman beharko dute gurasoek ikasleari botikak emateko baimena.**

Era berean, gogorarazi behar dugu behar adina ordu **lo egin** behar dela eta oso garrantzitsua dela ondo **gosaltzea** eskola-egunari behar bezalako egoeran aurre egin ahal izateko.